

Idazlan honek Bengoetxearen formakuntza ibilbide akademikoa azaltzen du, gaztarotik hasita eta Edinburgheko doktoratu bitartean. Ondoren ibilbide akademikoa profesionala aztertzen da. Ikuspegi historiko-autobiografikoa leku, herrialde, pertsona eta garai ezberdinei buruzko gogoetak tartekatzen dira, nolako ideiak eta planteamenduak hartzen joan den azalduz. Estilo pertsonal batetik josita egon arren, idazlanak erreferentzia teoriko eta praktikoa batzuk ere eskeintzen ditu, autorearengan eragina izan dituzten faktoreak ulertze aldera.

Giltza-Hitzak: Joxerramon Bengoetxea. Euskal Herriko Unibertsitatea. Eskozia. Europa. Europar Justizia Auzitegia. Zuzenbidearen Filosofia. Eusko Jaurlaritzak. Oñatiko Zuzenbidearen Soziologiarako Nazioarteko Institutua.

Este trabajo repasa la trayectoria profesional de Bengoetxea, desde su juventud hasta que recibió el doctorado en Edimburgo. Después, analiza su trayectoria académica profesional. Se intercalan reflexiones sobre diversos lugares, países, personas y épocas, desde una perspectiva histórica y autobiográfica, a la vez que se expone las ideas y planteamientos que ha adquirido. A pesar de estar redactado en estilo personal, este trabajo también recoge algunas referencias teóricas y prácticas, para dar a conocer los factores que han influenciado al autor.

Palabras Clave: Joxerramon Bengoetxea. Universidad del País Vasco. Escocia. Europa. Tribunal de Justicia Europeo. Filosofía del Derecho. Gobierno Vasco. Instituto Internacional de Sociología del Derecho de Oñati.

Ce travail réunit la formation académique de Bengoetxea, depuis sa jeunesse jusqu'à son doctorat à Édimbourg. Il analyse par la suite sa trajectoire académique professionnelle. Un mélange de l'approche historique-biographique et d'opinions sur différents endroits, pays, personnes et moments, expose quelles furent ses idées et ses approches. Malgré un style personnel prédominant, ce travail propose aussi certaines références théoriques et pratiques, afin d'expliquer les facteurs qui influencèrent l'auteur.

Mots-Clés : Joxerramon Bengoetxea. Université du Pays basque. Écosse. Europe. Cour de Justice européenne. Philosophie du droit. Gouvernement basque. Institut international de Sociologie du Droit d'Oñati.

# Zuzena adarretatik

(Taking the law by the horns)

**Bengoetxea, Joxerramon**

UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.

Manuel Lardizabal 2. 20018 Donostia-San Sebastián

jr\_bengoetxea@euskalnet.net

## 1. Sarrera eta planteamendua

RIEvek eskatu bezala, Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxak urtero Giza- eta Gizarte Zientziak, Zuzenbidea, Artea eta Kultura eremu zabalean ematen duten saria aitzakia eta abiapuntu hartuta, eta 2010 urtean Sari hori jaso dudanez, ohorez beterik jaso ere, nire ibilbidearen inguruko artikulu hau bihoakizu irakurle. Saria hartzearekin batera diskurtso bat irakurtzen ohi da, eta diskurtso hura argitaratu egin denez, ez dut hemen errepikatzeko asmorik. Oso eginkizun bitxia egiten zait enkargu hau eta nire buruarekin deliberatu ondoren taxuzkoa iruditu zait nire ibilbide akademiko eta profesionalaren inguruko aurkezpen autobiografikoa egitea. Nire buruari kritika saio bat egin behar diot, eta neurri handi batean beste pertsona batzuekin elkarrizketa irudikatuan sartu beharko dut horretarako. Ez dakit lortuko dudan.

Saria emateko arrazoi nagusia Europar integrazioaren inguruan burutu ditudan lanak, teoriko zein praktiko, aintzakotu dira epaimahiaren erabakiari kasu egiten bazaio. Beraz Europar proiektuaren eta ametsaren inguruko gogoeta batzuk nire beste alderdiekin tartekatuko ditut idazlan honetan. Beste alderdi edo eremu horiek, honakoak dira: lehenbizikoa zuzenbidearen filosofia eta teoria –zuzenbidea ordenamendu instituzional normatiboa gisa ulertzen duena– erabaki judizialen bidezkotzearen teoriak, estatu eta nazioaren inguruko teoriak –nazionalismo eta autodeterminazioa– eta kultura juridikoaren inguruko lana dira, nagusiki. Baina gaiei buruzko burutaziorik ez da hemen egingo: ibilbidea bera da interesatzen zaigun ikuspegia. Ideien autobiografia baino historia sozialeko idazlana da hau, nire ibilbidea markatu duten gertakizunak, pertsonak eta erakundeak azalduko ditut.

Sari emaileek kontutan hartutako beste alderdia euskaraz egindako ekarpena dago, nire argitaratutako ikerketa andana euskaraz baitago idatzita. Ez dut euskararen inguruko gogoetarik egingo artikulu honetan, azken batean euskaraz idatzi, irakatsi eta argitaratzea normaltasun batean kokatzen dugun heinean, soziolinguistikako gogoetak ez dira lerrotuko ezintasunaren kexaren inguruan, diziplinaren inguruko erronka baizik, ezagutzaren soziologia eta epistemologia. Denok dakigu gure hizkuntza eder honek normaltasunik ez duela oraindik erdietsi maila

sozial orokorrean, baina jakintzaren arloan egindako bidea, EHUren eskutik bereziki baina ez bakarrik, harro egoteko motibo ematen digu, loratzen ari baita. Edozein ideia adierazgarri da gure hizkuntzan, neologismoak, maileguak, edo perifrasiak –inguruminguruak– tarteko. Aurrebaldintza bakarra dago horretarako: adierazi beharreko ideia garbi eduki. Orduan pentsagarri den heinean izango da adierazgarri eta ulergarri. Normaltasuna ordea, soilik praktikak ekar lezake.

Beti saiatu izan naiz modu argi batean pentsatzen. Hori euskaraz irakasteak suposatzen digun esfortzua da, bejondeigula horregatik. Gaztelaniaz ere aritu izan gara eta aritzen gara, eta normalduagoa izateagatik ez da horregatik argiago edo zehatzagoa. Beraz ideiak –edozein hizkuntzetan irakurri edo entzun egiten ditugunak– ulertu ondoren, euskaraz pentsatu eta adierazi egiten ditugu; nolabaiteko etengabeko elebidun eta norabide bikoitzeko itzulpengintzan arituak eta azkenean adituak bilakatzen gara. Niri behintzat eleaniztasun honek mesedegarri iruditzen zait. Euskaraz argitaratzeak, jakina, bere prezioa dauka: inork gutxik irakurtzen zaitu eta beraz inork ez kritikatu eta kritikarik gabe ez dago norberaren lana hobetzerik, ez dago diziplinan baliorik eransterik; gainera inor gutxi ez zaitu zitatu; eta egun zitazioen bitartez neurtzen da bikaintasuna eta arrakasta akademikoa. Horrek erderetan idaztera eta argitaratzea bultzatzen gaitu maiz. Erderetan argitaratzen duguna euskaraz egindako lan osoaren lagin hautatua baldin bada, gaitzerti! Nik oreka bat bilatu nahi izan dut beti nire lan hizkuntzen artean eta ondorio praktikoa honetara iritsi naiz: espezializazio lanak direnean ingelesez argitaratzen ditut. Hedakuntza edo dibulgaziokoak direnean –irakaskuntza materialak kasu, edo prentsako artikulua edo antzekoak– euskaraz idatzi eta argitaratzen ditut<sup>1</sup>. Beste hizkuntza batzuetan ere argitaratu izan ditut, halanola gaztelaniaz edo frantsesez, baina kasu hauetan hizkuntza horietan eskatu izan zaizkidalako izan da. Nire irizpideak garbi dauzkat, buelta eta neke asko hartu ondoren: ingeleraz argitalpen espezialduak eta arloko lanak, noizbehinka beste erderetan ere, eta euskaraz dibulgazioko lanak.

Nire ideiak aurkezteko orduan bi estrategia ezberdin alderatu ditut: modu sistematikoan ideia ezberdinak bildu, adibidez Europar integrazioari buruzkoak, zuzenbideari buruzkoak, nazioari buruzkoak, aniztasunari buruzkoak<sup>2</sup>. Hurbilketa honek koherentzia dakar, baina akaso ideiak gehiegi sistematizatzea ere bai, nire buruan daukaten sistematizazioa baino gehiago izatea: ez litzateke oso erreala izango, ezta nire buruarekin leial, ordenatuegi, apainduegi azalduko nintzateke.

1. 1990 hamarkadan RVAPn argitaratzen nituen euskeraz idatzitako lanak, horietako asko zehatzegiak ziren, berezituuegiak, adibidez Justizia Auzitegiaren kronikak. 1997tik aurrera Elerian argitaratu izan ditut. Eleriaren 15. alea adibidez, zuzenbidearen teoriaren Klasikoak jasotzen ditu. Noizbehinka RIEven ere bai. Azken dibulgazio lan nagusia John Rawls-en *Justiziaren Teoria Bat* lana famatuaren itzulpenaren gainbegiratzeko eta sarrera, Klasikoak bilduman, 2008an.

2. Saria ematea aitzakia hartuta, eta lehenagotik ere bai, elkarrizketa ugari egin dizkidate Euskal Herriko prentsa-bideak (aipagarrienak Noticiasen, Garan, Berrian, DVn, EITB irrati-tietan zein ETBn, edo aldizkari berezituak. Bertan saiatzen naiz nire ideia batzuk azaltzen; hona aipagarrienak, Administrazioa Euskeraz, Eleria (20), Aldaketa 16, eta bloggetan ere bai Asmoz eta Jakitez, Euskonews, Derecho a Replica, lokarri,...

Beste hurbilketa kronologikoa da, nire ideia eta ekarpen nagusiak –bakan batzu, ez pentsa– garatzen joan diren moduan azaltzea. Ideia hauek modu kronologikoan aztertuko ditut baina horretarako esperimendu hermeneutiko bat proposatzen dut. Gaztaroko garai, prestakuntzarena Unibertsitatean trebatzen amaitu arteko urteak kronologia ohikoan azalduko ditut, denboraren pausuz. Orduan nire gainean eragina berezia izan duten pertsonak azalduko dira eta neurri batean idazlan hau eurekiko omenaldi gisa planteia dezaket aldi berean. Ikaskuntza ofizial edo arautuari erreparoa ematea da nire asmoa puntu honetan, Unibertsitatea bait da edo hobeto esateko izan daiteke pertsonaren berrikuntza intelektualaren arragoa bat, ez bakarria jakina. Aldiz, nire bizitza profesionala atzeraka azalduko dut, retrospekzio bat eginez, orain nagoen atakan hasita, Unibertsitateko irakaskuntza eta ikerkuntzan kokatzen bainaiz, eta atzeraka nire ibilbide askotarikoa azalduz.

Ez ditut zertzelada pertsonalegiak sartuko, norabide profesional eta unibertsitaria dira interesatzen zaizkigunak, baina ezinbestean pertsona eraginkor batzuk azalduko dira hemen ere bai. Anekdotaren bat ordea sartu beharko dut, eta bizitzaren pausaleku ezberdinetan gogoetaren bat egitea zilegi begit.



Aita Joxemari, ama Purí, anaitia Luis Carlos eta laurok, anaiaren eskola diplomatikoan sartu zenekoa

## 2. Hastapenak eta ikaskuntzaldia

Gure etxean sortua izateko zortea izan nuen. Gaztetan ez nituen gauzak beti hain argi ikusten, baina jasotako maitasuna eta etxean ikusitako errespetua, umorea eta sena, orain bereziki estimatzen ditut. Aitarengandik jasotakoa, batez ere optimismoa, umorea, eskerrona, sarkasmo puntu bat eta akaso ziria jotzeko joera, gehiegi sakatu gabe. Amagandik, maitasuna, bidezkotasuna, barkamena. Anaia-rengandik ikasteko grina, nazioartearekiko interesa, konforme egoteko joera eta eskuzabaltasuna. Aita eta anaia intelgentzia eta kultura handiko pertsonak dira; aitaren kasuan autodidakta dosi handiekin. Anaia kasuan oso prestakuntza onari ikasten jarraitzeko ardura gehitzen zaio. Etxean zorionez, aberats izan gabe, ikasketa onak eta baliotsuak hartzeko erraztasunak eman izan dizkigute beti, adibidez, udaratan Inglaterrara edo Frantziara joaten ginen hizkuntzak lantzeko. Etxean beti egon dira liburuak, irakurri egin da dezente.

Gure etxeko giroa ez zen euskalduna. Elebiduna bai, baina ingelera eta gaztelania konbinatuz. Halere, iruditzen zait euskararekiko bultzada ni konturatu gabe eman zidatela. Anaia Deustuko unibertsitatean 1975 urtean zuzenbide eta ekonomia ikasketak burutzen ari zenean euskara ikasten hasi zen, lehenengo urratsak besterik ez, eta horrek ni ere animatu ninduen, anaia eredugarri nuelako gauza guztietarako. Lekarotzen, barnetegian, oroitzen naiz nire ikaskide batzuk euskaldunak zirela, Arruabarrena Elorriotarra eta Elgarresta Bergararrak besteak beste, eta hauek gure fraile kaputxadun batekin, Orberekin, egiten zutela, eta niretzako erronka izaten zen beraiek ulertzea. Aitari Oiartzunen euskeraz galdetzen ziotenean ulertu egiten zuen baina hizkera galduta zuenez gaztelaniaz erantzuten zuen; amak ez du inoiz jakin, Burgosen jaioa eta Irunen frankismo garaian eskolaratua izan zen. 14 urte nituela hasi nintzen euskara ikasten eta uste dut azkar etorri zitzaidala. Euskarari, gipuzkerari esan beharko nuke, bultzada nagusia hemezortzi urte nituela eman nion aitaren aldetik gure sorlekua den Aiako herrian, Uzaeta-buru baserrian, morroi ibili bainintzen. Euskalkietaz jakina ez nintzen jabetzen. Bergarara joan arte ez nintzen jabetu. UNEDeko ikasketak burutzen ari nintzenean zuzenbidezko eta filosofiazko azterketak astebetean egin nituen bi urtetan 1984-1986, 10 azterketa inguru astebetean. Lehenengo urtean ostatu batean geratu nintzen. Baina bigarren urtean ikaskide nuen Maite Aristegik, eskuzabaltasun osoz, Lamariano Etxeberri baserrian azterketa garaian geratzeko eskaintza egin zidan. Orduan ohartu nintzen bizkaieraz. Egun, bizkaiera gertukoa eta gogokoa dut, baina ordura arte euskalkiak Benito Lertxundik abesten zituen Xiberuerazko kantengatik bakarrik ezagutzen nituen, nahiko idiliko eta irreal, ia utopiko bezala ikusten nituen. Jose Agirre, bakiotarra izan zen nire euskarazko irakasle bikaina Irungo Pio Baroja institutuan, Euskalduntzen ikasliburua erabiltzen genuen batueraz, baina etxean Yon Oñatibiarena bagenuen, gipuzkeraz.

Batxilergoko Institutua aipatzen dudala, nire hango lau irakasle gogoratu nahi ditut, eragin berezia izan zutelako nirekiko. Lehen lehenik Javier Elzo, orduan erlijio ematen eta pentsarazten ziguna. Bere eskutik hasi nintzen Amnesty Internationalen bileretara joaten, Ibaetan hain zuzen 1980an. Amnestyren aldeko

joera niregan oso errotuta neukan etika kristauari zor diot, biolentzia ezari. Aitak Gandhitaz egiten zidan noizbehinka eta amak kontatzen zidan nola hinduek ez zutela ezta eltxo zakar edo txinaurri nimino bat ere hilgo, bergorpuztearen prebentzioaz<sup>3</sup>. Bigarren institutuko irakaslea Montagut izan zen, levantinoa. Historia ematen zigun 1976 urtean. Asko gustatu zitzaidan bere joera eta arduratu egiten zen euskal historiari eta arteaz zerbait ikasten eta guri irakasten! Hirugarrena Anjou fisika eta kimika irakaslea; uste dut oinarri sendoak eman zizkidala. 1981ko oroitza-pena Juan Gaztañaga filosofiaren historiako irakaslearekin lotzen dut, pertsona on ona! Saiatzen zitzaigun ikasleoi Zubiriren sena edo inteligentzia sentikorraren ideiak ulertarazten; alperrik gure adin horretarako. Urte ederrak izan ziren horiek, 1976-1981 bitartekoak, bereziki Irunen pasa nituen, Kemen dantza taldean, abertzaletasunaren kontzientzia, “grisek” Urdanibiako (Moskuko) kaleetan gomazko pelotekin manifaldiak desegin nahian, lehenengo lagun koadriela, lehenengo neskalagunak, lehenengo kontzertuak Uranzu pilotalekuan, lagun batzuen senideak ihesean, edo espetxean, ETaren lehenengo astakeriak, Merkelanz taxistarena adibidez<sup>4</sup>, bizilagun baten aita zen, Anarena. Institutuko urte horietako bat, 16-17 urterekin Michiganen pasa nuen. Aitak esaten zuen, istiluetatik urrundu nahi ninduela, baina azalpen horrek atsekabetzen ninduen, nire idealak oso garbiak ziren, abertzalea nintzen eta Elizatik urrunduta baina nire balore etikoek ezin zuten inolaz ere onartu pertsona bati bizitza kentzea, Amnesty Internationalekin batera heriotz zigorraren aurkakoa banintz, nola izango nintzen ba ETA zuritzeko edo barkatzeko gauza, are gutxiago inguratzeko? Baina agian aitak nire inuzente alderdi horretaz jabeturik, beste arriskuetatik babestu nahi ninduen; izan ere kalean droga zebilen eta ordura arte dena debekatuta egon izanak askatasun sentsazio mugagabea izaten genuen lehenengo loturetatik askatuz eta berrietara hurbilduz. Berak ere ez dauka oso argi zergatik bultzatu ninduen, urte nahasiak ziren politikoki, ekonomikoki, sozialki, kulturalki.

Michigango esperientzia oso garrantzitsua izan zen niretzako. Hango irakas-kuntza sistema guztiz desberdina zen, erreza egiten zitzaidan ez zelako hain kontzeptuala eta memoriazalea, baina bestaldetik oso sortzailea eta libreza zen. English Literature historia eta Estatu Batuetako sistema politikoa gogoratzen ditut bereziki eskolatik. Nire lehenengo saria hortxe irabazi nuen, *Social Sciences distinction* eman baizidaten Kearsley High Schoolean, Flint, Michigan. Agian ordudani baneukan gizar zientzietarako interesa eta joera.

Michigandik kanpora hiru bidai egin nituen, bat etxe-automoz Floridaraino, beste bat Chicagora, eta beste bat Niagarara, New Yorken, azken hau Begoña Lasagabaster lagunarekin eta bere gurasoekin. Begoña ere ikasturterako Michiganen zegoen. Oroitzen naiz Javier sailburuarekin trenean izandako solasaldi interesgarriak, Eusko Jaurilaritzaren eta Ertzaintzaren lehenengo urratsen berri emanez.

3. Nire gurasoak Delhi Berrian bizi izan ziren bost urtez, Espainiako enbaxadan lan eginez. Horratio aitaren indio ezizena. Anaia Carlos Luis han jaio zen.

4. ETak bahitu eta hildakoa, geroxeago akatsa ametitu zuen. Erabat inpaktatu ninduen horrek.



Flint Michigan, Graduation batxilergoa ospatzen, Michelle Procter eta Gerald Hopson zenarekin

1979-80 amerikar ikasturte horretatik nire amerikar familia goraipatu nahi dut segidan. Betty eta Jim Fahselten etxera joan nintzen. Bettyk batez ere harritu ninduen alderdi ezberdinetatik: emakume independentea zen, artista eta arte ederreko ikasketak zituen. Bustingintzan zebilen, eta oraindik ere dabil 78 urtekin. Uste dut emakumeekiko nire ikuspuntua aldatu egin zela berari esker. Emakume horrek inizatiba zeraman etxean eta etxetik kanpo. Liderra zen. Berarengandik askatasun pertsonala deskubritu nuen; familia bat izanda, senarra eta lau seme, halere libre izan zaitezke zure gustuko gauzak egiten badituzu, zure kabuz pentsatzen baduzu, zure bizitza proiektua baldin baduzu. Behar duzuna zera da ausardia, lotsa gutxi, ideiak garbi izatea, handinahia ez izatea. Bettyk arteren mundura bultzatzen ninduen, nire sormena arlo plastikoan ez ezik literaturan eta filosofiarantz zuzendu nituen nik. Thoreau, Salinger, edo Gibran berari esker irakurri nituen. Beste gauza bat berarengan arritu ninduen erlijioarekiko jarrera izan zen. Guztiz berria niretzat. Erlijioa askatasunarekin lotzen zuen. Niretzat erlijio katolikoa ordura arte debeku eta betebeharren dekalogoia zen, dogma eta santuen bizitzak. Mezak eta eleiz ospakizunak aldiz protokolo hutsak, pentsamenduari talka jarri eta errezitazioei ekin, rutina eta asperdura. Baina igande goizetan hortxe ikusten nituen Betty eta Jim poz pozik metodozale (Methodist) elizkideak eta artzaia agurtzen, irakurketa eta sermoinen inguruko gogoetak egiten, txekak idazten diru laguntza ematen. Hori dana berria zen niretzat. Beste behin, lagun beltzarekin Gerald Hopson zenarekin,



batatzaileen (Baptist) elizkizunetara joan nintzen, eta hor berriz bizipen desberdina, kantak etengabe, erritmoak hasperenak, berrespenak, txaloak, besarkadak. Eliza gizakoiak ziren horiek, sinesdunaren eta jainkoaren arteko konexioa bilatzen zuten; artzaia horixe zen, gidari bat, sherpa bat itun berria ulertzen laguntzen zuena. Niretzat hori guztia oso bitxia zen. Elizkizunetara zihoazen gazteak, neskak adibidez, oso liberalak ziren amodio kontuetan. Inondik ere puritanismoaren irudi hura.

Nire burua agnostikotzat jotzen nuen, orain bezala, baina ordudanik sentitu izan dut begirune berezi bat erlijioarekiko. Geroxeago jakingo nuen eleiza katolikoa ere antzeko aldaketak bultzatu izan zirela batez ere auzogune beharginetan. Ameriketara nengoela Monseñor Romeroren erahilketa gertatu zen El Salvadorren. Garbi zegoen ertameriketako Eliza Katolikoaren zati batek askagintza bilatzen zuela, Jesusen mezu askatzailea eta solidarioa azpimarratuz. Nire baitan beste Eliza posiblearen irudia lantzen zihoan. Nire kasuan bezala, galdutako ardiek ez genuen zergatik kontra egin beharrik – garai haietan antiklerikalismoa oso modan zegoen batez ere Euskalerrian. Geroxeago konturatu nintzen tradizio luzekoa izan zela joera hura, apaizen eta elizen aurkakoa, eta aitaren familian, jeltzaileen nekeetaz jakin nuen, bigarren errepublikaren garaian, elizak babestera joaten zirela, tartean osaba Jose Luis Bengoetxea, ezkertiar eta anarkosindikalista antiklerikalen erasoengandik. Ni ez naiz jeltzale eta ez naiz fededun baina zinez uste dut jeltzaile horiek gure begirunea merezi dutela errepublikaren alde eta kristautasunaren alde egin zutelako, korrontearen aurka. Zuzena adarretatik, bai horixe. Geroxeago izango zuten bere gizatasun jatorra erakusteko parada, erbestean duintasunez Europaren eta Euskadiren alde, bakea eta demokraziaren alde lan eginez.

Unibertsitatara joateko garaia iritsi zen. Anaia Madrilen zegoen eskola diplomatikoa egiten (Nazioarteko Zuzenbide eta Harremanak ikasten ziren bereziki) eta orduan neronek ere Madrilerako joatea erabaki nuen, Unibertsitate Autonomak hiri unibertsitariar zuten CEU batetara. Han lehenengo urtea egin nuen, ez oso gustura, egia esan. Interes handia neukan zuzenbidearen filsofiaren inguruan baina ez ninduen asetu. Madrilgo Colegio Mayor batean egon nintzen, Chaminade izenekoa, eta bertan jende interesgarria ezagutu nuen, besteak beste Iranzo edo Reinares politologoak, Fernandez Flores edo Palomero musikologoak, Borja Aginagalde artxibozalea, honek animatu ninduen Eusko Ikaskuntzan kide nedin. Chaminadetik pasa ziren pertsona ospetsuak kontzertuak edo hitzaldiak ematen, enaiz zerrendatzen hasiko baina batek bereziki inpaktatu ninduen, Ignacio Ellacuria teologo josutarra, hau ere El Salvadorreko paramilitarrek 1989 urtean erahila. Lerro hauek idazten ari naizen bitartean New York Times aldizkarian (2011-5-31) irakurtzen dut azkenean Eloy Velasco, Espainiako ANko epaileak Ellacuria eta beste zazpi pertsonen aurkako Salbadorreko Exerzitoko Ministrari eta beste 19 atentatugile eta prestatzaileen aurkako erahilketa, terrorismoa eta giza-zauriagatik atxilo-agindua eman duela. Zuzena adarretatik, bai horixe.

Bigarren urtean aldaketa asko izan genituen. Zuzenbidearekin asetu ezin, eta filosofia ikastea erabaki nuen. Hasiera batean filosofia bakarrik ikasi nahi nuen, baina etxean denak kontra jarri ziren eta azkenean bi ikasketak batera eramatea erabaki nuen. Horretarako Autonomaraino joaten nintzen trenez goizero

zuzenbidea ikasten eta arratsaldeetan nire kabuz filosofia UNEDen ikasten nuen; batzutan tutoregoetara joanez. Anaia eta biok apartamentu bat alokatu genuen Malasaña auzoan. Madrilgo mobidako urteak ziren horiek, eta kurioa izaten zen punk, mod, glam, metal eta antzekoak kaleetan ikustea, antropologo batek urruneko tribuak aztertzen zituzten bezala. Nire mobida filosofia ikastea izan zen, eta logika eta antropologia soziala bereziki. Zuzenbide penala asko gustatu zitzaidan, eta Rodríguez Mourullo izan zen gure maixua, gero abokatu ospetsua izango zena. Hirugarren urtean, ikusita trenean denbora asko galtzen nuela, UNEDetik ikasi nituen bai zuzenbidea eta bai filosofia. Nazioarteko zuzenbidea eta administratiboa gustatzen zitzaizkidan gehienbat. Paul Reuter-en testuliburu klasiko eta konterbadorean ikasi nuen Europar zuzenbide komunitarioari buruz zertxobait, bizitzan lehenengo aldiz, eta ordudanik daukat *van Gend en Loos* edo *Flaminio Costaren* aferak gogoan. Chaminadera itzuli nintzen eta oroitzen naiz Fernando Reinaresek, orduan doktoradutzan hasten ari zela, liburu bat argitaratu zuela Bilboko Desclée de Brouwer argitaletxean euskal gatazkari buruz: *Violencia y Política en Euskadi*, 1984. Liburuaren aurkezpena egileak mahai inguru eta bazkari batetara gonbidatu zituen. Orduan ezagutu nuen Mario Onaindia –sinpatia politikoa nion baina ezagutu nuenean herabe eta ixila iruditu zitzaidan–, eta JJ Roson ministroa bera, ETA PMren deuseztatzea adostu-osteko garaia zen hura. Ausardia izan zuten horiek ETA uzteko eta UCDkoek bizitza politikoan sar zitezen erraztasunak emateko. Zuzena adarretatik. Gaur egun, ETAREN amaiera behatzeko puntetatik ikutzen dugula, askoz ere jarrera itxiagoak planteatzen dituzte UCDkoen ondorengoek, nire ustez ikusmira motzarekin.



Donibane Garazin. Santiago bidea egiten

Baina Madrilen amorratzen nintzen, anaiak lehenengo destino topatu zuen Nadorren, Marruekosera joan zen eta nik Euskadira itzuli nahi nuen. 1984-1985 urtea zen eta lizentziaturaren laugarren urtea UNEDen jarraitu nuen, Bergarako mintegitik. Euskalerrian oso gustura nengoen nahiz eta, egia esan, denbora gehiegirik ez nuen herriaz disfrutatzeke. Irakurri, ikasi eta bidaiatzea zen nire denbora pasa. Eusko Ikaskuntzako zuzenbide eta antropologia sailetan sartu nintzen, eta bileretara joaten nintzen. Hor ezagutu nituen On Joxemiel Barandiaran, eta JM Apalategi, G Arregi, J. Azkona, F Leizaola, A. Celaya, edo A. Navajas. Asko ikasi nuen bilera horietan. Oroitzen naiz behin Bernedon aita Barandiaranek insistitzen zigula teoriari ekin beharrean etnografia landu behar genuela - arrasto, gailu, ikur eta testigantza piloa zegoela jasotzeko gure baserrietan, kultura bat desagertzeaz. Modan jartzen ari ziren gure artean materialismo kulturalaren eta estrukturalismo-ostearen arteko eztabaida akademikoak, eta horietan sartzea denbora alferrik galtzea iruditzen zitzaion nonbait. Garai hartan, Madrilen egindako kontaktu bat tarteko, *Basque Studies Programmek* amerikarrentzako euskal kulturari buruzko ikastaro trinkoa antolatzen zuen. F Mentxakatorre eta Sandy Ott zebiltzan hori antolatzen. Nire lehenengo argitalpenak ordukoak izan ziren. Irungo Institutu garaiko ikaskide batzuek Irunen aldizkari bat atera zuten, *Lamia*, literatura eta kultura gaiak jorratzeko. *Es posible la felicidad?* izenburuko artikulua argitaratu nuen beraienkin 1984an, existentzialismoaren eraginpean. Erantzun estetiko-utilitarista ematen nion, filosofia posible den bitartean, zoriona ere bada, filosofiak plazer intelektuala ematen digun aldetik, plazer hura zorion iturri bat da. Erabateko zorionari dagokionez aldiz, filosofiari esker ikasi dugu horrekiko mesfidati izaten. Nahiko pedantea egia esan. Nire bigarren eta hirugarren lanak antropologiaren inguruak izan ziren *Journal of Basque Studies in America* zeritzon aldizkarian, Juan Mendizabal jaunaren bitartez. Uztaetaburu baserrian egindako lekuan lekuko eskarmentuaz baliatu eta *case-study* bat idatzi nuen 1985an, antropologia sozialetik, eta bestea, "Kultur aniztasuna Euskalerrian" izenburua zeukan 1986an. Azken lan honen inguruko anekdota kurioa kontatu beharra daukat.

Sandra Otten santaztar artzaiei buruzko lana, *The Circle of Mountains*, bizi-ki miresten nuen. Sandyk, Basque Studies Programmen bitartez, Hernaniko Zelaia sagardotegian afaria antolatu zuen eta hara joan nintzen ikasle amerikarrekin. Afari horretan Peter Riviere antropologo ezaguna zegoen, Sandyren lagun berezia baitzen orduan, eta berari pasa nion artikulua horren zirriborroa. Ni nahiko harro nengoen nire lanaz eta laudorioak edo espero nituen, ordura arte horixe jasotzen bainuen anaiarengandik, edo adiskideengandik. Rivieren kritikak benetan zorrotzak eta gupidagabeak izan ziren. Nire ikuspegia, Euskalerrian kultura ezberdinak oinarri materialen arabera bereiztearen beharra eta nola euskal nortasunaren diskurtsoek kultura horietako bat, baserriarren mundua, lehenesten zuen. Kritikatu zidan erabat objetibismo itxura ematen nuen baina diskurtsoen azterketa eta nortasunaren beraren diskurtso kulturala baztertu nuela eta ez nuen lortu *cultural boxes* edo kultur-kutxatiletatik nire burua askatzen. Funtsean horrela gogoratzen dut kritika. Hasiera batean samindura sentitu nuen, nire ideiak suntsituta ikusiz. Hori apaltasun lezioa jaso nuena. Denborarekin ulertu nuen Oxforden ispiritua hor-

txe azaltzen ari zela, horixe zela unibertsitari izatea, kritika sakona eta zintzoa, ez gaiztoa edo krudela, ez zen ezertarako egiten mintzeko asmoz, baina bai gordina eta gardena, gure akatsak eta ahuleziak agerian utziz, zuzendu eta sendotzeko aukera emanez. Eta ideiek edo teoriak ez bazuten kritikaren erasoaren aurrean eusten, ba inolako pena eta damurik gabe, bertan behera utzi eta beste zerbaiti ekin, ideia berriei. Karrera amaitzen ari nintzen eta azkenean bizi nuen Unibertsitate idealaren esperientzia bat. Hurrengo urtean antzeko zerbait biziko nuen Edinburghen Beverley Brown irakaslearen eskutik genero eta zuzenbidearen inguruan idazlan bat gorriz marratutako iruzkinaz itzuli zidanean, eta hasiera batean samindura sentitu nuen arren, berehala ikusi nuen horixe zela benetako unibertsitatea. Noizko gurean?

Ikusten nuen antropologia niretzako hobby bat besterik ez zela izango, galdera nagusiei erantzun potoloak bilatu nahi bai, halanola kultur-aniztasuna eta horren eragina filosofia politikoaren gainean, baina diskurtsoak arakatuz kausitu nahi nituen erantzunak, eta ez ideologia batetik. Filosofia praktikoaren arloa interesatzen zitzaidan, UNEDeko ikasketetan dezeptzioa hartu nuen R. Brandt-en Etikarekin edo Bayer-en Estetikarekin, gehiago ikasi nahi nuen. Gero eta argiago nuen zuzenbidearen filosofia ikasi nahi nuela, logika, hizkuntzaren filosofia, etika eta filosofia politikoa baina baita soziologia eta antropologia politikoa nituen gogokoan. Baina UNEDeko zuzenbidearen filosofiako lerroa ez zitzaidan interesatzen; oso zehatzgabea edo metafisikoa neritzon. Horrela zuzenbidea Euskal Herriko Unibertsitatean ikastea erabaki nuen, filosofia UNEDen jarraituz. Garai honetan hasi zen nire filosofia praktikoarekiko interesa sendotzen, zuzenaren adarrak eza-gutzen eta arakatzeko nituelarik; azken batean zuzenaren inguruko ideia diskurtso batean kokatu eta garatzen doa, eta galdera garrantzitsua da nork hartzen duen parte diskurtsoan, nola, zein argumenturekin, edo nola erabiltzen diren autoritatea eta interesak diskurtsoan gailentzeko. Zuzenaren adarrak aldarri diskurtsiboak dira neurri handi batean. Ez Habermas bakarrik, baita arrazonomenduen teoriak, Grice, Searle, Ricoeur, edo gure artean Muguerza (UNEDekoa).

EHUn zuzenbidean matrikulatzea niretzako erabakiorra izan zen oso. Hasteko, masifikazioaren urteak ziren. Ehundik gorako ikaslegoa ikasgeletan, klase magistralak, apunteak ziren irakaskuntzaren oinarri, hortik kanpora, ezer gutxi norberak irakurtzeko, ez eparirik ez bibliografiarik. Sistema hori bultzatzen lehenengoak ikasleok ginen, eta gero irakasleak. Euskaraz ezer gutxi zegoen –Bakaikoa eta Gorostiaga irakasleak ziren salbuespena– baina Fernando Mendizabalen eskutik euskara juridikoa lantzen hasi zen mintegi berezietan, jakina gauza hauek guztiak borondate hutsez egiten ziren, ez zegoen inolako kreditu ofizialik. Guk hutsune handia sumatzen genuen eta hori betetzen saiatzen ginen, gure aldetik. Zuzenbide ikasketaren antolakuntzak eta irakaskuntza praktikak neurri batean mundu irreal batean murgiltzearen sentsazioa ematen zidan, ez ziren ezertarako eztabaidatzen gizartean gaurkotasuna zituzten arazo horiek. Adibidez, 1986 urtea zen, Espainia Europar Ekonomia Elkartean sartu zeneko urtea, baina inondik ere ez zen horrelakorik somatzen zuzenbide fakultatean. Beste adibide bat, apirillean Tchernobylgo zentral nuklearrean istripu eta isuri nuklearrak gertatu ziren, baina ez zen ezer ko-

mentatzen. Guk Lemoizen aurrekaria genuen, baina ETak muturra sartu eta ekologismoari kalte handia egin zion Ryan erahilda. Berdin egingo zuen 30 urte beranduago Uria enpresaria erahil zuenean Abiadura Handiko Trenaren kontrako kanpainan, mugimendua erabat kaltetuz. Kontzientzia ekologikoa Tchernobylgo istripuarekin sartu zitzaidan neri. Beste bat, Lurralde Historikoen Legea zela eta, EAJren baitan oso eztabaida sakonak egon ziren, Garaikoetxea Lehendakariak dimittitu egin zuen, alderdi berria eratu zen, EA, Europa eta sozialdemokrazia, eta Euskadiren ikuspegi nazionala zituen ardatz. Gure familian ez zen haserrerik sumatu, baina hainbat ezagunen familietan eztabaida sutsuak izan ziren PNVkoen eta EAkoen artean. Orain, urteak pasa ahala ulertu dut Euskal nazioaren ikuspegi federala egokiagoa dela, zentralista baino, baina orduan, bazirudien lurraldeari buruzko eztabaidak, pertsonalismoarekin eta boterea lortzeko tirabirekin nahastu egiten zirela. Baina Euskal Erkidegoaren eratzeaz ez zen fakultatean publikoki eztabaidatzen. Geroxeago jabetu naiz, neurri batean EHuko zuzenbide fakultatean ez dela benetan gaurkotasuneko gai politiko-juridikoei buruzko eztabaida suspertzen, zuzenbidearen logika positibistan neurri batean *de lege lata* lehenesten delako, *de lege ferenda* eginbeharrekoak politikaren munduari utziz, beste diskurtso bat baltitz bezala. Ez da bakarrik biolentziak gure giroa kutsatu duela, horrek zerikusirik izan arren. Espero dut biolentziaren amaierarekin gauzak nolabait aldatzea, baina ikaslegoaren ez dut sumatzen lehen genuen interesa, agian gu politizatuegiak geunden, akaso oraingo ikasleak imunizatuegiak. Kontua da ez zaiola zuzenari adarretatik heltzen, hori ez delako ikusten jurista baten eginkizun bezala. Zuzenbidea, diskurtso tekniko hutsa.

Eztabaida interesgarrienak geletatik kanpo izaten genituen, eta ekitaldi asko izaten ziren ikasketetatik kanpo, hala nola hitzaldiak, asanbladak, Udako Ikastaroak edo bilerak eta topaketak, eta hauetara interesagatik joaten ginen, ez ziguten krediturik ematen. Ikaskuntza ofizialean nire babesleku eta atsedeen bakarra Zuzenbidearen Filosofiako taldea zen, eta bereziki Juan Igartua katedraduna. Bere gidaritzapean artikulu ezberdinak irakurtzen nituen eta gaian sakontzeko aukera izan nuen, interpretazio teorien inguruan. Beste irakaslea Kiko Caballero zen eta zuzenbidearen soziologia irakasten zigun. Egia esan, oso interesgarria iruditu zitzaizkidan ikasketa hauek. Lekuan lekuko lan bat aukeratu genuen ikasle talde batek, Gipuzkoako Baserriaren Oinordetza, eta horretarako Eusko Ikaskuntzaren dirulaguntza bat lortu nuen, nire lehenengo beka edo laguntza (1986an). Bergaran, Aian eta Oiartzunen jardun genuen elkarrizketa antolatua egiten, eta oso emaitza interesgarriak izan genituen, antropologiaren ikuspegia gureganatuz. Lan hau, lehen aipatu dudan Maite Aristegirekin batera Udako Euskal Unibertsitatean aurkeztu genuen 1986ko uztailan Iruñan, euskeraz; nire lehenengo hitzaldi akademikoa izan zen hura. Argumentu nagusia zera zen, Gipuzkoan, Espainiako kode zibila aplikatu arren Euskal Herriko beste foru zuzenbideko berezitasunen antzeko sistema ohituraren bitartez garatu zela, hobekuntza eta xedapen askeko erenak erabiliz, baserria osorik eta zatitu gabe jaraunsteko belaunaldiz belaunaldi, eta hori arau gisa ikusten zutela nekazal munduan.



Donostia, 2010eko azaroaren 23an. Nire familiarekin, ezkerretik eskuinera, Izaskun Iriarte emaztea, Beñat semea, Luis Carlos anaia, Joxemari aita, Joxemari semea, Ander hiloba, Puri ama eta neu Eusko Ikaskuntza - Caja Laboral saria jasotzen

Juan Igartua irakasleak animatu zidan Eusko Jaurlaritzaren beka bat eskatzeko, atzerrian ikerkuntzan trebatzeko. Orduan Hezkuntza Sailean beka kopuru berdina izaten zen euskaldunentzat (naparrak barne) eta Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta zeuden ikasleentzat. Nik euskaldun bezala eskatu nuen, aukera gehiago izango nuelakoan. Nire espediente akademikoa ez zen bereziki ona, erdipurdikoa baizik: gaiak gaintzeko adina ikasten nuen, ez gehiago. Filosofia ikasketak banituen eta nahiko nota onekin, baina amaitugabeak. Matrikula bakarra neukan zuzenbide karrera osoan, zuzenbidearen filosofian hain justu, baina oso proiektu polita prestatu nuen euskaraz ikerkuntza aurrera eramateko. Kontua da Igartuak eman zizkidala irakurtzeko hiru liburu: bat Joseph Raz, *The Authority of Law*, beste bat, R. Dworkin, *Taking Rights Seriously*, eta hirugarrena Neil MacCormickena zen, *Legal Reasoning and Legal Theory*. Azken hau izan zen gehien gustatu zitzaidana, eta erabaki genuen Edinburgherako eskatuko nuela Eusko Jaurlaritzaren graduondoko beka MacCormicken magalean trebatzeko. Geroxeago ulertu nuen estrategia zabalago baten zutabe bat izan zela erabaki hura. Gure zuzenbidearen filosofiako arloan ulertu zuten europarantz zabaltzeko beharra, Espainian nagusi zen zuzenbide filosofia korrontea ez zelako hain interresgarri, oso politikoa eta estatuzalea zen, demokraziaren *ancilla* edo morroi, zentzu onenean esanda, jakina. Igartuak harremanak Polonian landuz, Ezquiagak

Belgikan, Barrerek Italian, Caballerok Frantzian, gure ateak eta harreman sareak hedatu egiten ziren Europan barrena, eta emaitzak bistan dira. Gerxeago Iturralde eta biok sartu ginen. Eskoziar loturarekin sarea ingelesdun mundura zabaltzen zen. Estrategia inteligentea eta ausarta benetan, Igartuari zor dioguna. Eusko Jaurlearitzaren bekarako hautaprobak oso serioak iruditu zitzaizkidan, oso galdera zorrotzak eta egokiak egin zizkidan epaimahaiak, kontutan izanda, iusfilosoforik ez zegoela mahai-kideen artean. Euskaldun bat bazegoen, nire euskarazko maila onetsi zuena. Beka lortu nuen eta Edinburghera joan nintzen, baina abuztuan alemaniera landu nahi nuenz Wienera, Austriako hiriburu zoragarira joan nintzen. Madrilen ezagututako lagun baten etxean egon nintzen, Hubert. Oso ondo portatu zen nirekin, egia esan. Filologia ikaslea zen bera eta bekarekin oso estudio polita zeukan, beste ikasle asko bezala, jabetza publikoko etxebizitzak. Ongizateko estatu horrek baliabide ugariak zituen eta hiritarrek aukera berdintasuna benetakoa bazeukaten birbanaketari esker. Zerga altuak ordainduz eta ongi probestuz. Antzeko zerbait ikusiko nuen Eskozian, etxebizitza publikoak eta dirulaguntzak. Guregana zerga altuen eta zerbitzu sozialen kultura hura pixkanaka eta poliki badator, zorionez, baina krisi itzela pairatu behar izan dugu horren garrantziaz, zerbitzu eta laguntza publikoen babesaren garrantziaz jabetzeko. Zuzenari heltzeko garaia justizia sozialaren bila.

Nik pentsatzen nuen Edinburghera bekarekin urtebeterako nindoala, Masterra egin eta itzuli. Horregatik masterrean matrikulatu nintzen eta masterreko ikastaroak jarraitu nituen, *Contemporary Issues in Jurisprudence, Sociology of Law, eta Criminology and the Methodology of the Social Sciences*. Baina beka doktoradutzarako zen eta aukera izango nuen hiru urtetan MacCormikekin ikasteko. Jaurlearitzatik jaso nuen bekarekin oso ondo moldatu nintzen eta nire lehenengo "soldata" hau zeruko oparia zen; kontutan hartu ordura arte beti gurasoen kontura bizi izan nintzela. Baina, horren truke gogor lan egin beharko nuen. Nire herritarkideen zergetatik zati bat ematen zidan Jaurlearitzak, nik baino behar handiago zuenaren kaltetan. Ezin nuen alferrikan galdu. Bidezkoa zen neronek trukean zerbait ematea. Hau ez dut esaten nire burua gorestu mailan, inolaz ere, ez daukat nire jarrera sozialaz harro egoteko motibo berezirik. Askotan erdi txantxetan leporatu izan zait kontua; zu beti ikasi ta ikasi; bada garaia zerbait produzitzen hasteko... Ba bai, funtzionario eta bereziki akademiko teoriazale garen askok konplexu hori daukagu.

Edinburgehoko hiru urte horietaz zerbait esan nahi dut, nire bizitzan oso ederrak izan zirelako. Unibertsitateko erresidentzia batetan bizi nintzen, lehenengo urtean gela biologiako ikasle txinatar batekin konpartituz. Korear arkitekto bat ere bazegoen ondoko gelan. Hiruren artean studio bat genuen Mylnes Court Halls of Residence, Royal Mile deritzon Edinburgh zaharreko kale nagusian, gaztelutik Holyrood jauregira doana. Udaran pisu batera joaten ginen. Zonalde horretan David Hume bizi izanak xarma eta esanahia berezia ematen zion harrizko patioari. Oso polita zen eta garagarraren usaina, odeien abiadura eta tabernetako oihu eta musika ondarrekin nahasten ditut nire oroitzapenak. Enaiz luzatuko Eskoziari buruz, baina garai horietan oraindik ez zegoen *devolution* prozesurik, Britania

Handian Thatcher andereak agintzen zuen, eta eskoziarrak laboristak ziren gehienbat. SNP bazegoen eta europarlamentari famatu bat zeukan irletan eta goierrian, Winnie Ewing. Laster jakin nuen Neil McCormick, nire doktore zuzendaria eta irakasle mirestua SNP alderdiko sortzailearen semea zela, eta bere liburua *Legal Right and Social Democracy* irakurri nuenean deskubritu nuen iritzi politikoetan nahiko gertu nengoela bere ideiangandik, baina berak bere ideiak oso modu koerente eta arrazoizkoan garatuak zituela, eta nik nireak, anbiguo eta zirriborrotsu nituela. McCormicken ekarpenari buruzko lanak argitaratu ditut *Anuario de Filosofía del Derecho* (2009) eta *Doxa* aldizkarian (2010) eta berri berria *The Post-Sovereign Constellation; Law and Democracy in Neil McCormick's Legal and Political Theory* liburuan<sup>5</sup>, baina hau ez da horren berri emateko lekua. Nire ustez azken 40 urteetako iusfilosoforik interesgarriena izan da: zuzenbidearen, demokraziaren eta justiziaren ulermenaren gainean ekarpen handia egin zuen gizarte –eta etika– aniztasunaren testuinguru batean. Zaila da bere nireganako eragina azaltzea. Bere eredu jarraitzen saiatu naiz eremu askotan, ikasleekiko harremanetan, konfidantza emanaz, beren alderdi onena bilatuz, eztabaidetan beste interlokutorearen argumentuak ulertzen eta ikusten saiatuz, jasotako gonbidapen akademikoetara baietza emanez nahiz eta batzutan deserosoak izan, pentsamendu ezberdinei lekua eginez eta norberarenak kolokan jartzen eta azkenik filosofia praktikoaren eremu ezberdinak –teoria, kritika, praktika juridiko zein politikoa, aholkularitza, kudeaketa akademikoa– konbinatuz. Teoria juridikoan instituzionalismoa, zuzenbidea dela “ordenamendu normatibo instituzionala” eta zuzenbidearen aplikazioan arrazonomenduaren garrantzia eta diskrezioari buruzko ikuspegia jarraitzen ditut nik ere bai. Nazionalismo liberala, autodeterminazioa eta sozialdemokrazia filosofia politikoan. McCormicken azken bilakaera teorikoa *Rhetoric and the Rule of Law* (Oxford, 2005) liburuan azaltzen da eta bertan Alexy eta Dworkinengandik hurbiltzen da; zuzenbidean diskrezioa murrizten da zuzenaren eremuan kokatuz.

McCormick ez zen Edinburgh Unibertsitateko *Old College* ospetsuan eza gututako irakasle aparta bakarra. Oroitzapen ona daukat beste batzuekiko, halanola, Zenon Bankowski, zuzenbidea anarkismoarekin edo maitasunarekin lotzen gauza izan den McCormicken betiko lankide; Vinit Haksar, moralaren filosofoa; Michael eta Ruth Adler politologoak; Steve Neff, nazioarteko zuzenbideko pentsalari eta jurista ospetusa; Neil Walker, egun, konstituzio-teorigile anglofonoetan onenetakoa; hauek eta beste batzuk alkartzen ginen Neil-en bulego zabalean (dekanoa zen orduan) eta *reading lunch* izaten zen astelehenero, bakoitzak bere sandwichta edo fruta zeramala, eta Neilek *instant* kafea eta tea eskaintzen zigun, inoiz sherry bat ere bai. Bazkari-mintegi hauek oso interesgarriak ziren eta jakina, ez ziren irakaskuntza eskaintza formalean sartzen, ez ziren neurtzen kredituetarako. Ostegunero, *Centre for Criminology and the Sociological and Philosophical*

5. Agustín José Menéndez and John Erik Fossum (eds), Springer, Dordrecht-Heidelberg-London-New York, 2011, nire ekarpena 12 kapitulu dago izenburu honekin: “Nation-States vs Nation-Regions in the Post-Sovereign European Polity”.



*Study of Law* zeritzonaren saileko mintegia izaten zen. Bertan ikerlari bisitariak, edo saileko irakasleek hitzaldi bat eskeintzen zuten eta saileko kideek –graduondoko ikasleak barne, Bruce Anderson, Yorgos Mousourakis, Scott Veitch, Emiliios Christodoulidis, besteak beste– parte hartzen genuen. Mintegi horietan hizlari izateagatik ez zen ezer ordaintzen jakina. Ekitaldi akademikoak, formalduak ez daudenak, ez dira ordaintzen Europako herrialde gehienetan eta nire ustez Euskadin eredu hura jarraitu beharko genuke. Aukera izan genuen J. Wroblewski, Q. Skinner, N. Lacey bezalako akademikoak entzuteko. Mintegi hauek informalak ziren, ez zuten krediturik ematen, baina gure formakuntzarako erabat egokiak, kritika zintzoa eta iritzi trukea ikasten zen. Egun dena neurtu eta ebaluatu edo akreditatu egiten da gure unibertsitate sistema espainolean, hortan ez gara EHU bereizten. Iruditzen zait Bologna formalizatzen ari dela Espainiako ministerioak hartutako hainbat erabakiengatik, baina Bologna prozesuak hasiera batean ekarri nahi zuen ikaskuntza informala edo ez-formalaren ikuspegia ez dugu ezertarako landu, eta Unibertsitatearen izpirituan ikaskuntza informala formala edo arautua bezain garrantzitsua da. Ni harritzen nintzen Eskozian adibidez ingeles literaturako edo historiako ikasle batek nola banku batean sartzen zen lanean, eta hori neurri handi batean ikaskuntza unibertsitari zabalari esker da, azken batean universitas hitzaren esanahia orotarikotasuna dakar, eta irakaskuntza aratuak berezitasunaren arauketa dakar.

Nire doktoradutza garaiko beste akademiko batzuk ez ditut aipatzeko utzi nahi: Beverley Brown, genero eta zuzenbidearen harremana lantzen aitzindari; David Garland, kriminologia teoriko modernostekoa, munduan famatua; Bob Lane, zuzenbide europarraren ezagutza entziklopedikoa duena; Sandy McCall Smith penalista, oso idazle ezaguna, *bestseller*, bilakatua alabentzako gau ipuinak idatzi eta irakurtzetik garatutako zaletasunetik abiatuta; Tony Bradley, konstituzio aditu klasikoetako bat; Bill Wilson, Scots zuzenbideko irakasle-ikerlari nekagabea; Anne Griffiths, zuzenbidearen antropologiako ahots interesgarrienetakoa, Tswana zuzenbidean bereizitua; Dereck MacClintock kriminologia kritikoaren sortzaileetako bat, eta guztien gainera David Edward. Bere zuzenbide komunitarioko klaseetan ikasteaz gain pentsatu egiten genuen. Berari buruz geroxeago mintzatuko naiz.

Edinburgh eta Eskozia nire baitan txertatu dira. 1986an joan nintzenean herrialde nahiko pobrea ikusi nuen, langabezi handia, oso enplegu eskasak eta laguntza soziala oso hedatua. Eskoziarren fama txar hori, zuhurrak izatearena ez nuen ikusten, jende eskuzabala da, baina alferrik gastatzea ez du gustuko eta ostentazioa are gutxiago eta zerga edo laguntzen inguruko iruzurra gorroto du. Akaso Calvinismoarekin lotutako arrazoi erlijiosoek azalduko dute alderdi hura, baina diru hestualdirik ez duen jendearengan ere hedatuta dago dirua ez xahutzearena. Berdintasunaren irudi bat sortzen da, eta eskoziarrek orohar berdintasunari, aukera berdintasunari, zerga kulturari, laguntza sozialari eta pribatuari (*charities*) eta doako zerbitzu publikoei garrantzia handiagoa ematen diete beste britaniarrek baino eta horretan Euskalerrian dukegun elkartasun eta berdintasun sentimenduari atsekiz eredugarri iruditu zitzaidan jarrera sozial hura. Beldur naiz guregan ez ote dugun alderdi hori azken urteetan galdu, norberakeria eta aberas-

tu nahi izatearen mesedetan. Zuzenaren zentzua berreskuratu beharra dago. Sentimendu nazionalen ere alderdi konplexuak antzematen zaizkie eskoziarrei; alde batetik harrotasun bat eskoziar izateaz eta eskoziar kulturaren ikurretaz, Walter Scottek bereziki modan jarri zituenak, eta bestalde ingelesekiko etengabe-ko ukazio konplexua. Ingeles askok gutxietsi edo ignoratu egiten dituzte eskoziar-rrak interes faltagatik batez ere, baina eskoziarrek ez zuten hori oso ondo hartzen, konplexu bat ezkututzen zen nonbait. Alderdi guztietakoek zeukaten sentimentu bikoitz hori, baina SNPko abertzaleek adierazpen politikoa ematen zioten, *labour* eta *toriek* aldiz ez, baina guztiek zeukaten sentimentu nazionala. Unionisten arteko sentimentu nazionala ere bazegoen. Bikoiztasun honek RL Stevenson-ek oso ondo islatu bere elaberrietan. Oso Eskozia desberdinak daude, ekialdeko kostaldea, sartaldekkoa, goierria eta uharteak, eta mugaldea, hiri handiak eta herri txikiak –kategorien objetibotasun aldarri arriskutsu batean jausten ari naiz, Rivierek kasu-arazten zidanaren kontra– baina guztiek zeukaten eskoziar-britaniar bikoiztasun hori. Eta independentzia lortzen dutenean ere, lortzen badute, uste dut horrela jarraituko duela. Oso lorpen baikorrak eman ditzake. Ilustrazioa edo Argiak, eskozian Glasgow eta Edinburgh unibertsitateen inguruan, 1707ko *Act of Union* edo parlamentuen batasunarekin batera gauzatu zen. Devolution edo autonomia politikoarekin, 1998. urtean gauzatu zena, antzeko loraldia ekarri du, eta egun, eredugarri bilakatzen ari da, berezko estaturik ez duten gurea bezalako nazioentzat. Europan bagara batzuk.

Beste ikuspegi batzuetatik Eskoziak estatu baten ezaugarri propioak ditu, guri falta zaizkigunak, bere hezkuntza autonomia, erlijio propioa, sistema juridiko eta judiziala gorde izan zituelako. Eskoziar nazio statusa onartzen da Britania Handian eta eskoziar bandera ejerzito britaniarraren egoitza guztietan dago eta eskoziar kirol selekzio nazionalak inolako oztoporik gabe onartuak dira, baina olimpiadetan aldiz britaniarrekin batera lehiatzen dira. MacCormicken eskutik ezagutu nuen Eskozia lehenbiziko aldiz. *Haggys*, *neeps*, *kippers* janariak, *whisky* ezberdinak eta *ales* garagardo epelak (70 eta 80 *shillings*, batez ere *Diggersen* hartuta), musika zoragarria, taberna bitxiak (*Cunnymans* kasu), Edinburgh festival harrigarria, kultura-bizitza aberatsa, museo ederrak, Unibertsitateko bizitza intelektuala.

Garai honi buruzko oroitzenak ederrak dira, baina beste hiru atal aipatuko ditut Edinburghheko doktoradutza garaia ixteko. Edinburghen nengoela bi bisitaldi akademikoak egjin nituen. Lehenengoa Berlin zatituta 1988ko udaran, harresia apurtu baino urtebete lehenago. Europar Udako Unibertsitatea antolatuta zuen Berlingo hiriak (mendebaldekoak) Europar kultura hiriburuen egitarauaren barruan. Bertan astero gizarte zientzietako irakasle ospetsu ezberdin baten mintegiak jarraitu ahal izan nituen, mendebaldeko zein ekialdeko Europako beste ikasle batzuekin batera, eta hau dena Neil MacCormicken laguntzari esker. Hauek izan ziren nire irakasleak: Jon Elster filosofo soziala, Pierre Bourdieu soziologoa, Niklas Luhmann sistemen eta autopoiesisen sortzailea, Gajo Petrovic pentsalari Marxzale kritikoa eta Agnes Heller filosofoa. Hau dana Berlingo hiriak emandako beka bati esker. Oso interesgarria izan zen Berlin ezagutzea baina ez nuen denbora asko eduki turismorako; asko irakurri behar izaten zen aste barruan. 1989ko neguan, nire

tesiko azken urtean, graduondoko Erasmus proiektu batean parte hartu nuen, Edinburgehk Florentziako Europar Unibertsitate Institutuak eta Paris Xek antolatutako ikastaro trinko batean, Fiesolen. Honako irakasleen mintegiak izan genituen: Banwoski eta MacCormick Edinburghetik, Grzegorzik eta Troper Nanterretik eta Nerhot eta Teubner Fiesoletik; horri gehitu zitzaion Aarnioren bisita edo IUEk antolatuta zeuzkan bertako irakasle batzuren mintegiak – Steven Lukes, Jurgen Schwarze, MR Lepsius. Erasmus aukera hau benetan interesgarria izan zen. Florentzian hiru hilabetetan bizi izatea ere gauza sinestezina zen, nahiz eta hemen ere jasotako beka ondo probestu behar nuenez asteburuetak arratsaldeak bakarrik nituen turismoa egiteko. Geroztik izan dut Berlinerak, Edinburghera edo Florentziara itzultzeko aukera eta ikasle garaian galdutako aukera berreskuratzeko, baina ez da gauza bera izan. Ikasle zarenean ez dituzu hiriak eta parajeak modu berdinean ezagutzen. Bertan kokatu egiten zara, auzoguneren batean txertatzen, ideien mundua da gure txokoa, nolabaiteko utopia, lekueza; tokiak eta ikusgarriak ez dira lehenetsun. Neri behintzat hori gertatzen zitzaidan. Ezagutu ditut munduan leku berezi batzuk bi alderdi horiek konbinatzen dituztenak, halanola Ann Arbor, Bologna, Cambridge, Fiesole, Freiburg, Fribourg, Göttingen, Leiden, Leuven, Lund, Oñati, Oxford, Tübingen, Urbino... Ezagutzen ditudan beste Unibertsitate-herri batzuk aldiz ez ditut horrela ikusten, ez Edinburgh edo Glasgow, ez Saarbrücken, ez Helsinki, ez Oslo, ez Göteborg, ez Kopenhage, ez Stokolm, etab.

MacCormickekin tesia egitea eginkizun samurra zen, ez zuelako oztoporik sartzen. Beragandik jasotzen nituen iruzkinak ez ziren zuzenketak, galderak baizik, gauza batzuetan gehiago sakontzeko edo ideia batzuk lotzeko konbidatuz. Bera ez zen orduan Europa zuzenbide komunitarioan aditu baina bai teoria juridikoan, eta ni baino urrunago eta sakonago arakatzan zuen beti, baina inolako leziorik eman gabe, beti galderen bitartez eta animoak emanez. Bere laguntzari esker hirugarren urterako prest nengoan, eta tesirako listo nengoenean, Bielefeld taldeko bileretan parte hartzeko aukera eman zidan. Hau nazioarteko ikerkuntza talde bat zen sistema juridiko ezberdinetan erabiltzen ziren eta nagusitzen ziren legearen interpretazio metodoak gonbaratzen zituena, Interpreting Statutes liburuan ikus daiteke emaitza. Peczenik, Bergholtz, Dreier, Alexy, Aarnio, Taruffo, Dreier, Wroblewski, Gardies, Summers, edo Bankowski bezalako adituak zeuden MacCormickekin batera. Nire zuzenbide komunitario europarraren kontrola edo tesi-tutoretza Robert Lane irakasleari zor diot. Asko ikasi nuen berarekin, zehaztasunak garrantzitsuak direla ikasi nuen, eta erakundearen zuzenbide konstituzionala baino garrantzitsuagoa zuzenbide materiala dela ikasi nuen, mugimendu askatasunak, politika komunak edo lehiaketa zuzenbidea. Nire tesi defentsa bitxia egin zitzaidan. Erresuma Batuan ekitaldi itxiak dira, eta ez da notarekin kalifikatzen: Viva esaten da gainditzen denean, bestela tesia berregitera. Nire kanpoko aztertzailea John Bell izan zen, zuzenbidearen teoriarik eta zuzenbide gonbaratua aditua. Nire barruko aztertzailea David Edward izan zen, Edinburghen zuzenbide komunitarioko katedra zeukana, baina Luxenburgon, Lehen Instantziako Auzitegiko epaikide izendatu berria zena. Defentsan te bat hartu genuen David Edwarden bulegoan; galderak egin zizkidatzen; modu zintzoen eta egoienean erantzuten saiatu nintzen ni, eta

irtetzeko eskatu zidaten. Handik bost minututara zoriondu egin ninduten eta doktorea nintzen. Handik bi hilabetetara John Bellen kritika eta aholku zehatzak jaso nituen argitalpenari begira, eta Oxford University Pressen argitaratu nuen handik hiru urtera 1993an, *The Legal Reasoning of the European Court of Justice* izenburuarekin. Honekin amaitu zen nire gaztaroko formakuntzaldia. Tesia defenditu eta hurrengo egunean Europar Giza Eskubideen Auzitegiari buruzko ikerkuntza proiektu batean hasi behar nintzen Sarreko unibertsitatean, Heike Jung irakaslearen ikerlari laguntzaile gisa (wissenschaftlicher Mitarbeiter) Saarbrücken hirian. Nire lehenengo benetako soldata izan zen hura eta nire ibilbide profesionalaren hasiera. Heike Jung ordudunik bilakatu zen laguna eta adiskidea eta gutxienez urtero ikusten gara. Berari esker eta bere lankide Georg Röss, Ulf Neumann, Müller-Dietz edo Alessandro Baratta bezalakoiei esker ezagutu nuen Alemaniako unibertsitatea. Saarbrückengo emaitza artikulu interesgarri bat izan zen *Legal Studies*-en argitaratu Heike Jungek eta biok argitaratu genuena 1991an, "European Criminal Jurisprudence", Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren arrazonamendua aztertzen genuen kriminalizatzeko eta diskriminalizatzeko aferen inguruan. Handik, 1989ko gabonetan Euskal Herrira itzuli nintzen, Euskal Herriko Unibertsitatean lanpostu bat lortzeko itxaropenaz. 1990ko apirillean gauzatu zen amets hura eta orduaz geroztik EHUko irakasle izan naiz. Tarteko hiru hilabeteetan Xabier Etxeberria abokatuarekin jarri nintzen pasante eta abokatu gisa erroldatu nintzen, baina lan hura ez zitzaidan gustatzen. Unibertsitatean nuen neure gogoa.

### 3. Ibilbide profesionala

Egun, 2004etik honako lan jarduera daramat Euskal Herriko Unibertsitatean: irakaskuntza, ikerkuntza eta hedapen-saretze proiektuak. Irakaskuntzaren aldetik klaseak ematen ditut graduondoetan eta zuzenbide graduan edo lizentzian: zuzenbidearen teoria, soziologia eta filosofia da nire jakintza arloa eta nire espezialitatea, euskaraz ematen ditut klase hauek Donostian 1990 urtetik eta Leioan 2004 urtetik. 1990-1993 urteen artean lehenengo klase horietatik eskuliburua prestatu nuen, *Zuzenbideaz, Teoria Kritiko Trinkoa*, (IVAP, Oñati 1993). Oraindik ere hango ideia eta pasarte erruz erabiltzen dut, besteak aldiz zaharkituta geratu dira. Mintegi moduko klaseak izaten dira oraingoak baina ikasleei iritzia ematea asko kostatzen zaie nahiz eta orohar ikasle finak izan. Leioan Donostian baino desegituratuagoa ikusten dut zuzenbidearen adarra eta orokorrean ikasleek ikaskuntzaz besteko kreditu-ezagutzarik gabeko jarduera akademikoetan ez dute tamalez partetik hartzen. Unibertsitatea asko aldatu da. Gradu barruko irakaskuntzaz gain, hiru master ofizialetan ematen ditut graduondoko klaseak:

- 1) gaztelaniaz bi ikastaro, bat EBko mugimendu-askatasunei buruz eta beste bat koesio politikari buruz Europar Batasunaren Zuzenbidea eta Ekonomia masterrean (JI Ugartemendia adiskideak koordinatzen duen internet bidezko masterra, EHUK Eusko Ikaskuntzako Asmoz fundazioarekin antolatzen duena),

- 2) euskaraz, euskal nazionalismo eta Europar integrazio prozesua, Nazionalismoa XXI Mendean master ofizialean (J Zabalo eta M Zubiaga irakasleek koordinatuta),
- 3) Zuzenbidearen Soziologiarako Nazioarteko Institutuan neronek UPV/EHuren aldetik koordinatzen dudana International Master in Sociology of Law mastertean ingelesez kultura juridikoen aldaratzea ematen dut. Horrez gain doktoradutza bat koordinatzen dut Zuzenbidearen Soziologian UPV/EHU, master honen jarraipen akademikoa dena.

Irakaskuntza betekizun eta koordinazio hauekin Unibertsitatearekiko dudana kreditu zama betetzera iristen naiz. Gutxi gora behera, ardura honek bost hilabete uzten dizkit ikerketak egiteko. Hiru ikerketa proiektuetan murgilduta nago une honetan: Espainiako Zientzia eta Ikerkuntza Ministerioak aitortutako ikerkuntza proiektu bat zuzentzen dut (bi urteko, X Arzoz adiskidearengandik jaso dudana) funtsezko eskubideak Lisboako Tratatuaz geroztik da proiektuaren izenburua. Proiektuak jasotako dirulaguntzari esker Mintegi garrantzitsu bat antolatu behar dugu 2012an *Ultima ratio* Europan eta EBko neurri zigortzaileak gaiari buruz. Bigarrena publiko/pribatuaren arteko lankidetzari buruzkoa eta Gipuzkoako Aldundiak, EHUrekin bultzatutako elkarlanaren fruitu da. Ikerketa talde bat sortu dugu honetarako eta emaitzak 2011 urte amaierarako egongo dira. Oso gai interesgarria da hau, nahiz eta askotan kritika ideologikoak jasotzen dituen. Guk aztertu nahi dugu hainbat alderdi sozial edo ekologiko non lankidetzak hauei esker ekimen berriak gauza daitezkeen, formula horiek gabe gauzaezinak liratekeenak. 2011ko San Ferminetan Oñatin ospatzen den kongresu garrantzitsuan lantalde handi bat sortu dugu gai honekin, eta ikerlari bi kontratatu ahal izan dugu sei hilabetez Gipuzkoako Aldunditik proiekturako jasotako dirulaguntzari esker. Hirugarren ikerkuntza proiektua Gurutz Jauregik koordinatzen duen Taldearen barruan gauzatzen dut, Giza Eskubideen inguruan, bereziki eskubideen teoria landuz eta botere judizialaren autonomia eta heteronomia aztertuz, honi buruzko liburu digitala dator 2012rako. Hiru ikerketa antolatu edo formal hauez gain, saretze lana eta ikerketa zehatzagoak burutzen ditut enkargatutako kongresu edo mintegietarako hitzaldiak eskatzen zaizkidanean. Orain arte nahiko lanpetuta eduki naute konpromiso hauek, normalean hiru gai nagusien inguruan izaten dira: “eskualdeak eta nazionalismoak Europan”, “kultura juridikoak, Europar integrazio prozesua eta gobernantza”, edo “arrazonamendu juridikoa eta erabaki judizialen azterketa”. Honez gain doktoregai batzuen tesia zuzentzen ari naiz, bat RL Stevenson idazle eskoziarraren justiziaren ikuspegiak (Iker Nabaskuesena), beste bat Justizia Administrazio Penalaren Argentinan eta atzerapenei aurre egiteko proposamenak (Pablo Ciochini), bestea EBko zuzenbide naturalaren teoria (Jorgen Stubberud), eta beste bat Enpresen erantzukizun penalari buruzkoa (Stef Khoury). Doktore tesi batzuen epaimahaietara ere deitua izaten naiz, urtean behin, azken biak Helsinkiko Unibertsitatean (Elina Pauniorena, eleaniztasuna eta arrazonamendu juridikoa Europan Justizia Auzitegian, 2011ko otsaila, eta Suvi Sankari, hirirtasuna eta arrazonamendu juridikoa Europan Justizia Auzitegian, 2011ko ekaina). Saretzea aipatu dut, eta egia esan bai Oñatiko Institutua dela eta bai doktoradutza egitarauak direla,

bai masterretan klase bereziak ematea dela, harremanak lantzen ditugula Europako beste unibertsitateekin. Adibidez Milango Unibertsitateak zuzentzen duen Renato Treves Europar doktore sarean dago EHU eta urtean bi aldiz joaten gara ikasle berriak onartu edo daudenen txostenak aztertzerara. Alderdi hau garrantzitsua da, baina denbora aldetik nekeza, guk antolatu behar izaten ditugu gure irteerak, gastuen itzulketak, etab. Nahiz eta bidaiatzea oso polita den, bidaiak akademikoak ez dira gauza bera. Ulertuko denez unibertsitate bizitzak oso lanpetuta nauka. Osta osta aurkitzen dut liburutegira joateko astirik, eta ahal dudanean etxetik egiten dut lana, errepidean denborarik gutxien galtzearen, zeren Gasteizen bizi eta Donostian bulegoa izateak garraio denbora asko suposatzen du.

1993 eta 2004 urteen tarte luzean Unibertsitatetik kanpoko lanetan egon naiz, nahiz eta unibertsitatea ez dudan inoiz bistatik galdu, eta formalki zerbitzu berezietan egon naizen, eta jarraitu dudala 40 bat artikulua argitaratzen, eta liburu bat eta Eusko Ikaskuntzaren Euskal Federazioaren Konstituzioa landu nituen *La Europa Peter Pan. El constitucionalismo europeo en la encrucijada* liburuan Oñati, 2005. Europako Estatu Batuen Federakuntza eredia proposatzen da bertan. Nire ametsa, gauza jakina da, Euskadi bilakatzea estatu federatu horietako bat. Batzuren ustez oso urrun gaude, baina bestalde orain ikusten ari gara Estatukide subirauren Europar Batasun honek ez duela beharbesteko nortasunik ez mundu mailan, ez barrura begira hartu beharko lirakekeen, nire ustez jakina, erabakiei begira, besteen artean elkarren ongia, welfare edo common good edo zuzenaren inguruan, gobernantza ekonomikoa barne. Europar Batasunean nagusitu diren neoliberalismoa edo Washingtingo kontsentsuak zuzenaren kontzepziorik ez du; merkatuaren esku uzten du "balizko" ezberdintasun edo injustiziak zuzentzea; nire ikuspegitik, aldiz, merkatuaren balorea ukatu gabe, aukeren berdintasuna ekarriko duten berbanaketaren tresnak, jasangarritasunerako eta ezagutzarako inbertsio publiko estrategikoa lehenetsi behar dira. Europa mailan finantzen krisitik nagusitzen ari den defizit publikoaren kontrolak ez dakar berez hazkunderik, gastua murriztea dakar baina sarrrera berriak ez. Bankuei laguntzeko orduan ortodoxiak ez du oztoporik ikusi, nahiz eta estatuetako kutzak hustu diren.

Unibertsitatetik kanpoko urteak kontatzen hasi baino lehen, unibertsitate lanarekin uztartu dudan azken eginkizun berezia aipatu nahi dut labor, Euskal Erki-degoko Hautes Batzordekide izan bait nintzen 2005-2009 urteetan, Eusko Legebiltzarrak juristen (abokatu edo zuzenbide irakasle) ordezkartzatik beste lau kideekin batera hautatua. Beste sei kideak Erkideko Justizia Auzitegi Nagusiko magistratuak ziren, lau urtetan zozketaz txandakatzen direnak. Lerro hauek idazten ari naizen bitartean protagonismo berezia hartu du Espainiako Hauteskunde Batzorde Zentralak; izan ere M-15 deritzon mugimendu zabalaren, 2011ko Maiatzaren 22eko hauteskunde bezperarako aurrikusitako ekitaldiak debekatu egin baititu, alferrik. Ni egon nintzeneko garaian ez zen horrelako erabaki seinalaturik hartu baina bai bigarren mailako erabaki batzuk. Inpresioa daukat magistratu diren kideen arteko erakustaldia izaten direla bertako eztabaidak, oinarrizko lan potoloena Legebiltzarreko letratuak egiten baitute. Nire ekarpen nagusia honakoa izan zen: bileretan euskaraz mintzatuko nintzela eta horretarako itzulpenzinta zerbitzua

antolatze eskaera egin. Oso harro nago erabaki horretaz, ordutik aurrera hasi bainintzen hauteslegearen euskarazko bertsioa erabiltzen eta konturatzen nintzen Batzordeko eztabaida batzuk, gaztelaniazko bertsioaren interpretazioan sortzen zirenak, euskarazko bertsioaren bitartez konpon zitezkeela, baina beste kideek, Iruin batzordekide ezik, ez zituzten argumentu hauek aintzakotzen. Auzietan antzeko jarrerara hartzen badute, oso zaila egingo zaigu inoiz euskaraz lan egitea justizia eredu honekin, gazteleranzko itzulpena erabiliko da beti. Ulertu dudanez Katalunian lortzen ari dira.

Hautesbatzordean izendatu izana, Eusko Alkartasunaren proposamena izan zen, Legebiltzarrak berretsia. EAko kide izan nintzen 1990 eta 2008 bitartean, urte horretan alderdien politika uztea erabaki bainuen eta orduz geroztik garbi daukat nire lan politikoa abertzaleak elkartze aldera izango dela, eta bereziki Europar integrazioaren inguruan elkartzea. EAn arima ezberdinak zeuden, azken hamar urteetan bereziki, eta ikusi izan dugu nola zatitu egin den, eta nolako bilakaera izan duten arima biek. Ez naiz gai honetan luzatuko. Bakarrik esango dut, nik lagun onak ditudala bi alderdietan, bai EAn eta bai H1en, beste alderdietan ere bai, EAJn eta Aralarren bereziki. Badirudi espektro politiko abertzalea sinpleagotze aldera joko duela botoen poderioz, alde batetik PNV-EAJ eta bestaldetik Bildu edo euskal ezkerria berria. Nik ez dut nire burua ez batean ez bestean ikusten, baina bietan bai, abertzaleak elkartzea baita nire asmoa, gutxienez funtsezko arazoetarako, eta hortik aurrera, transbertsalitatea landu alderdi espainol(ist)ekin akordioak lortzearen. Ez dut euskal politikaz gehiago esan nahi, noizbehinka analisi politikoak egiten ditugu prentsako iritzi artikuluetan irakasle kolektibo batek –J.M. Castells, P. Ibarra, J.G. Olaskoaga, X. Ezeizabarrena eta bostok– eta aski ezagunak dira gure ekarpenak.

Itzul gaitezen bada 1993 eta 2004 urteen tartean egindako ibilbidera. Luxemburgoko Europar Justizia Auzitegia aipatu dut, lehen David Edwarden eskutik bere laguntzaile letratu gisa aritu bait naiz bi alditan, 1993 (otsaila)-eta 1998 (otsaila) bitartean eta 2001 (abendua)-2004 (otsaila)koan, guztira zazpi urte ta bi hilabete. Gure lana hasiera batean nahiko zaila iruditzen zitzaidan; epaien zirriborroak prestatu eta gainera frantsesez. Bistarako txostena eta kideen bilerarako prestatzen genituen txostenak errazagoak ziren nolabait, baina epaiak ez. Denborarekin, eskarmentua hartuta, ikasi egin genuen eta garrantzitsuena beste epaile-kideak konbentzitzeko argumentuak aurkitzea izaten zen. Maixu bikaina izan nuen David Edward, batez ere diskurtsoaren joraketari begira. MacCormicken estiloa libreagoa zen, galderak egin, ideiak sugeritu, gure ikuspuntuak esploratu, etab. Edwardek gure zirriborroetan sartzen zuen eskua, gauzak bere erara, alegia, auzitegiaren erara esateko. Izugarriko doia dauka argumentuak eraikitze eta gutxienezkoa eta aldi berean funts handikoa esateko. Hizkuntza da bere eremua, ez da alperrikakoa izango Oxforden Latina eta Grekeren klasikoan lizenziatu izana zuzenbideari ekin baino lehen, eta zuzenbidean izan zuen abokatu esperientzia (Queen's Counsel eta CCBE, Europar Abokatuen Kolegioetako Elkarteko presidentea izan zen) modu dizdiratsu batez aplikatzen zuen epaile gisa. Erredakzioan geniala izateaz gain, bistetan eraginkorra izaten zen, auzilarien abokatuen izua izaten zen Edwarden galderei erantzun behar izatea. Nik erre-

torika, eta auzibidearen teknika ikasi nituen berarekin. Baina horretaz gain munduko osotik jasotzen zituen gonbidapenak hitzaldiak edo ikastaroak emateko eta askotan brainstorming saioak antolatzen genituen berak eta bere hiru letratu laguntzaileok, eta aldiroko stagiarek. Niretzako prestakuntza trinko eta orotarikoa izan zen zuzenbide komunitarioan. Gabineteko agenda eta asteroko bilerak ere niretzat tresna oso erabilgarriak izan dira aurrerantzean taldeak kudeatzeko orduan. Edwarden gabinetean lan egiteaz gain, talde britaniarren Auzitegirako bisitak zeudenean, urtean gutxienez hamar bat, hitzaldiak edo aferei buruzko *briefing* txostenak prestatzen genituen. Edwardek garrantzi handia ematen zien bisita hauei, bereziki britaniar epaileen edo parlamentukideen bisitei. Britania Handiko prentsak euroeszeptizismoa elikatzen zuen eta horri aurre egiteko gure eginkizuna eta lana, eta afera polemikoen gorabeherak oso ondo azaldu behar genuen. Edward nagusi bikaina eta jakintsua izateaz gain oso pertsona ona da, eskuzabala, dibertigarria, kultura handikoa eta umila. *Sir* izendatu zutenean ere bere betiko apaltasunez jarraitzen zuten *Sir* David eta *Lady* Elizabeth izaten, betikoak. Bere emazte Elizabeth ere emakume aparta da, eta gurekin, beren lankideekin talde ispiritua sortzen zen, ia ia famili giroa. Betirako izango natzaio eskerroneko bere letratu eta bere laguna izateko eman zidan aukeragatik. Europar Elkarrekin oso lan baldintza eta soldata onak eskaintzen zituen garai hartan, eta esan dezaket baldintza horiei esker nire egoera ekonomikoa erosoan izan zela eta aupada ederra eman zidala bizitzan. Ezin uka. Baina onena ikaskuntza izan da.

1998ko otsaila eta uztaila bitartean Unibertsitatean jardun nuen. Erabakita neukan Euskal Herrira itzultzea, eta semeak euskal giroan koskortzea. Zuzenbide komunitarioa ikuspegi akademiko edo teorikotik aztertzeako asmoa nuen, pilotutako esperientzia interesgarriari zukua ateratzeko. Neurri batean oraindik daukat eginkizun. Baina batzutan gauzak ez doaz guk pentsatutako ildotik. EA barruan berriro murgildu nintzen, Europarekiko sentsibilizazio lana lantzeko asmotan. 1998ko uztailan ustekabean PSE-EEK Ardanza Lehendakariaren Eusko Jaurlaritzan EAJrekin eta EArekin zuen koalizioa utzi zuen. Zituen hiru sailetatik handiena EAko Sabin Intxaurraga zenari egotzi zitzaion, Justizia, Ekonomia, Eustat, Lana eta Segurantzako Soziala. Sailburuorde eskaintza egin zidan neri Lana eta Segurantzako Sozialakoa. Abagune zoragarria iritzi nion. Bazkari baten inguruan elkar ezagutzeko lotu ginen Arantzazun, eta berehala eman nion baietza. Hona esan zidana: hilabete eskasarako zen, hauteskundeak pasa ahala PSE-EE berriz sartuko zela gobernu koalizioan eta gu etxera; bitartean, saiatuko ginen gauzak ahalik eta hobekien eta garbien egiten, eta interlokuzio ona izaten eragile guztiekin. Berriro unibertsitatea utzi beharra, nire ikerkuntza proiektu guztiak; berriro arlo berri bat ikasi beharra, oso delikatuena zena gainera: Enplegu eta lanerako trebakuntza zuzendaritza, Egailan (orain lanbide) enplegu eta formakuntzarako sozietate publikoa, Hobetuz Fundazioan Jaurlaritzaren ordezkartzaren ardura, Lan eta Segurantzako Sozialako zuzendaritza, Osalan (lanean osasuna eta segurtasunerako) erakunde publikoa, eta Ekonomia Sozialako zuzendaritza, eta horrez gain probintzietan lan delegazioak. Arlo guztiak ziren berriak niretzako. Lan zuzenbide ikasle garaietatik, gaiarekiko kontaktu bakarra Luxemburgon izan nuen, segurantzako sozialari eta enpleguari buruzko afera batzuetaz arduratua bainintzan. Oso talde ona osatu genuen ordea. Eta horri esker,



hasiera batean bereziki, ez ziren nire hutsune horiek igartzen. Gero denborarekin ikasten joan nintzen. Ikasi nuen guztia Sabinen hausnarketa eta esku-ezkerra politikoari esker, batez ere sindikatuekiko eta nire zuzendari eta delegatuen talde bikainari esker ikasi nuen. 1998an hauteskundeak izan ziren, ETAK sueten bat aldarrikatu zuen, alderdi abertzaleek Lizarra Garazi mugimendua abiatu zuten eta PSE-EE ez zen gobernu-koalizio berrian sartu. Hasiera batean hilabete bakan batzuen kontua izango zena hiru urte eta bi hilabete izan ziren azkenean niretzat. Nire planteamendua erabat aldatu beharrean aurkitu nintzen. Zerbait berria egin behar genuen. Abian zegoen Luxemburgoko prozesua, Europar Batasunean Estatukideen enplegu politiken koordinaziorako, gidalerroak, helburu zehatzak, ebaluaketak eta gomen-dioak, alegia koordinazio metodo irekia. Estatu ez ziren administrazioek zaila zeukatzten prozesu horretan parte hartzeko eta gure bokazioa, abertzale ginen aldetik, prozesu edo metodo horretan protagonismoa lortzea zen. Orduan hasi zen oso interlokuzio hestua gure sailburuordetzaren eta Eusko Jaurtizako europar politika zeramaten arduradun eta teknikariek, Lehendakariaren komisionatua, Europar Gaietarako zuzendaritza, Bruselako Eusko delegaritza, eta delegaritzan enplegu eta formakuntza arloa zeraman teknikaria, Izaskun Iriarte, 2001tik nire bikotekidea. Europar politika eta Lisboako estrategiako garaia ziren, hirugarren bidearen garaia, *from welfare to workfare*. Enplegu politika europarra nire interes nagusia bilakatu zen. Hasi ginen sare europarretan sartzen, Gizpukoako Aldundia bidaikide aparta izan genuen enpeinu horretan (Joseba Amondarain aipatu nahi dut bereziki), eta denborarekin erreferente bilakatu ginen: enplegurako politika lokala, esparru berriak, enplegua partitzeko ekimenak, lanbide prestakuntzaren ikuspegi orotarikoa, etengabeko ikaskuntza edo Lifelong Learning. Europar Batasunean Kontseiluko presidentziek antolatutako kongresuetara joaten ginen, Komisioarekin batzartzen, OCDEko kongresuetara gonbidatzen gintuzten. Saiatu ginen hau guztia euskal eragile sozialei azaltzen eta gure alde jartzen, baina alperrik. Konfrontazio fase batean sartu ziren, Lan Harremanen Euskal Esparruaren defentsan, teoria batean, edo formakuntzarekin zerikusia zuen guztiaz mesfidati ziren batzuek edo tresna horietan interesatuegiak beste batzuk. Kooperatiben alde egiten genuenean batzuk edo besteak izaten genituen aurrez aurre. Hobetuzen finantziario hestualdiak hasi ziren. PPko Espainiako gobernuak erabaki zuen ordura arte bidaltzen zuen dirua moztea<sup>6</sup>. Amorratzen zebilen, beste gauzen artean, 2001eko maiatzeko hauteskundeetan PP (Mayor Oreja) eta PSOE (Redondo Terreros) nagusi izatea eta Ibarretxe Lehendakaria eta abertzaleak kentzeko zituzteneko usteak ustel geratu zirelako. Beste estrategia bati ekingo zioten handik gutxira, alegia Batasunaren legekanpo uztea eta horrela gehiengo "berri" bat lortzea, 2009an gauzatuko zena Eusko Legebiltzarrean eta

---

6. PPko lan ministroa M Arenas izan zen. Ez genuen berarekin harreman instituzionalik izan, Arloko Konferentzia batean bilera bat eskatu genion baina "luzeak" botatzen zizkigun beti irripar batekin. Azken ministroa Aparicio izan zen; bera eta bere taldearekin harremana zaila izan zen, ez bakarrik Hobetuzen finantziarioagatik. Bien artean Manuel Pimentel izan zen ministro eta salbuespena: pare bat aldiz bildu ginen, instituzio errespetoa erakusten zuen eta lankidetzarako harrera ona. Baina gutxi iraun zuen Ministro gisa. Gizon edukatua, prestua eta zuzena iruditu zitzaigun. Bere azken berria tartelari gisa ikusi dugu aire kontrolatzaileen inguruko gatazkan; idazle ere bada. Bejondeiola!

Jaurlaritzan. Kontua da Hobetuzen problemak genituela, Europar Gizarte Dirukutxari buruzko ikuskaritza bat bidali zigun ministerioak iruzurrak aurkitu nahian, baina espainia mailako sindikatuak zituzten kezkarik handienak eta bide hori ez zitzairen komeni. Azkenean Hobetuz diru gutxiagorekin moldatu zen. Ez naiz zehaztasunetan sartuko, oso mingarria egiten zaidalako garai hura gogoratzea, gainera ELAko ordezkaria Hobetuzen, Eduardo Markinez jauna, zendu zen garai hartan. Egia esan sindikatuekiko eta enpresarien elkarrekeko harremanak zailak izan ziren. Giro politikoa ere zakartu zen, oso, frentismoa abertzalei leporatzen ziguten baina batez ere PP eta PSOEk bereziki bultzatzen zuten, nire ustez. Erretzen nengoen eta politika aktiboa uzteko prest. David Edwardek hori somatuko zuen nonbait, zeren berarekin berriz Luxenburgora, lanera joateko gonbitea luzatu zidan, 2001ko gabonetan hasteko eta 2004ko otsaila arte. Ez dut ezer berezirik esango bigarren epealdi honetaz, bakarrik Justizia Auzitegiko lanaz gain, batez ere zementuari buruzko kartelaren helegitearen ardura izan nuen, Europaren etorkizunari buruzko Komentzioaren garaia izan zela eta aukera izan nuela gertutik jarraitzeko. Bruselara 2002an askotan joaten nintzen, gainera Izaskun Iriarerekin genuen maitasunezko harremana sendotzen zihoan, eta han zegoen lanean oraindik, eta Neil MacCormick ere han zegoen europarlamentari, eta Gorka Knor ere bai eta bere laguntzailea Mikel Irujo laguna, gero bera izango zen europarlamentaria. Oso interesgarria izan zen garai hura eta horren fruitua, Eusko Ikaskuntzan prestatu genituen mintegiak eta Konstituzio proposamena.

Eusko Jaurlaritza irailaren 12an utzi nuen, mundua erabat aldatuko zuen dorre bikien atentatuaren biharamunean, eta Oxford unibertsitatera joan nintzen, nire lagunak ziren Stephen Weatherill zuzenbide europarreko akademiko oneneta-rikoak eta John Gardner, Ronald Dworkinen ondorengoak egindako gonbitea eta Linklaters abokatuen gabinetetako handiak lortutako beka eskuzabal batekin. Oso gustura egon nintzen Oxforden, paradisua niretzako, gobernuko gorabeherak bizi eta gero. Hori bakea! Oxfordeko hiru hilabete horietan ikerkuntzarako eta eztabaida akademikoetarako grina eta praktika berreskuratu nituen. Gobernantzaren teoriak eta soft law gaia jorratu nituen bereziki. *University Collegen* lortu zidaten *board* eskubidea bisitari gisa eta Iffleyn alokatu nuen All Soulsen jabetzako apartamentua. Oso garai polita izan zen. Unibertsitate gisa ezagutu dudakuriosoaena da, erdiaroko College sistema guztiz ezberdina<sup>7</sup>, eta gainera kokatu nintzen European and Comparative Law Institute, niretzako oso langiroa aproposa eskeintzen zidan. Ordudunik nago zorretan Steve Weatherillekin, John Gardnerekin eta Linklatersekin.

Duela gutxi utzi gaituen Sabin Intxaurraga zenari buruz zerbait esan nahi dut zati hau amaitzen joateko. Sabin politikoa zen goitik behera, pertsona ona, langilea, zintzoa, zuzena, sentikorra eta apala. Berarekin lan egiteko ohorea izan nuen bai Jaurlaritzan nengoenean, bai geroztik, bera Ingurumen sailburu zenean. 2002an, Johannesburgoko garapen jasangarriaren gailurrean beste eskualdenazioekin batera nrg4SD mundu mailako sarea sortu zuen eta aholkularitza ema-

7. Oso ongi deskribatuta dago Oxfordeko giroa Xabier Ezeizabarrena lagunaren *Un Vasco en Oxford* liburuan Fundacion Oreki, Lasarte Oria, 2009.

ten nion eskatzen zidan bakoitzean. Sare horretako presidentea bilakatuko zen 2005. urtean. 2008an aholkularitza lanak egin genituen berriro Unibertsitatearen bitartez Sabin sareko idazkari nagusia zenean eta beti ilusio handiarekin zegoen, lanean, sareak ehuntzen batez ere Latinoamerikar eskualdeekin. Hori eta Euskadira bake iraunkorra ekarriko zuen mugimendu berri baten aldeko ezkutuko lana egiten. Bere fruituak eman ditu 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetan, baina tamalez Sabinekin ez du ikusteko aukerarik izan. Eusko Ikaskuntza sari hau jaso nuenean hitz bereziak zuzenduko nizkion, jakin bainekien zeinen pena hartu zuen bere minbiziagatik Sari ekitaldira ezin zelako etorri.

Zorte handia eduki dut nik beti egokitu zaizkidan nagusiekin, Juan Igartua, Neil MacCormick, David Edward eta Sabin Intxaurraga, eta denbora motzean Heike Jungekin. Guztiengandik jaso dut aholku ona, aupada eta eredu. Pertsona hauek bildu ahal izan ziren ekitaldi garrantzitsu baten inguruan 2000 urtean Justizia eta Autogobernua kongresuan hain zuzen, Eusko Jurlartizako Justizia sailak eta Oñatiko Zuzenbidearen Soziologiarako Nazioarteko Institutuak antolatuta. Kongresu horretan garbi geratu zen Konstituzio espainiarra eta Gemikako Estatutua negoziatu zutenek Justizia administrazioaren oso eredu unionistarekin konformatu ziren, behar bada ez zutelako benetan ezagutzen Europako beste eskualdeetan (estatu federatuetan kasu) zeinen autonomia maila dagoen, eta kasu batzuetan (Eskoza kasu) erabateko burujabetza. Askotan esaten da Euskadik daukala oso autonomia maila handia, baina Justiziarri dagokionez, hori ez da egia, Espainian Justizia administrazioa eta Justizia botere bezala erabat zentraldua eta zentralista dira.



Gure Zuzenbidearen Filosofiaren arloko argazki bat

Esan dudan bezala, Kongresu garrantzitsu hau Oñatiko Institutuko lankideztaz antolatu zen, orduko zientzi-zuzendariarekin, Pierre Guibentif. Neronek postu hori lortzeko ohorea izan nuen 2005 eta 2007 bitartean, bi urtero aldatzen baita postua. Oso esperientzia polita izan zen hura. Lantalde zoragarri bat zuzentzeko parada izan nuen, eta Euskalerrian gehiago errotzen saiatuta ere, esan beharra daukat oraindik nahiko ezezaguna dela gure artean. Halere oso lan ona egiten du eta mundu mailan ezaguna da Law and Society deritzan jakintza arloan. Institutuarekin loturak mantentzen ditut, EHUko master eta doktoradutzaren bitartez eta mintegiak noizbait antolatzen edo probesten eta pentsatzen dut asmatuko duela aurrekontu krisi-garaia zail honi aurre egiten, eta asmatuko duela bide berriak jorratzen eta bere nazioarteko izaerari eutsi bitartean, euskal gizartean errotzen eta ekarpen handiak egiten..

#### 4. Zuzena adarretatik

Idazlan honek laugarren zatia izatea aurrakusten nuen, aurrerantzean zernolako asmoak eta proiektuak ditudan azaldu asmotan, baina hobeto pentsatuta, etorkizunak zer prestatzen digun ez dakigunez, nahiago dut hementxe gelditu. Une bizi-garrantzitsuak eta kritikoak daude Europan une honetan, berdin Euskalerrian, sekulan izan ez diren bake aukerak parean ditugula. Mundu mailan erronka demografikoa, pobrezia, gerrateak eta jasangarritasuna (aldaketa klimatikoa) dira kezka nagusiak. Denok saiatu behar gara ulertzen zergatik sortzen diren; gai hauetaz eztabaidatu eta hausnartu behar dugu. Egia da guregan ere nahikoa kezka eta estualdi daudela, baina ezin gara gure txokoan babestu eta gertatzen ikuskatu.

Galdera eta kezka hauek guztiak justiziaren eta politikaren galderak dira, filosofia praktikoa batetik erantzuten saia gintezkeenak:

- ulermena (gizarte zientziek ematen dutena),
- azalpena (giza zientziek),
- erabakia (filosofia praktikoa, hauen artean nagusiki zuzenbidea, edo zuzenbideak esan beharko nuke, erronka nagusi bat aniztasunetik dator-kigulako).

Ekintza jakituria edo know-how teknikoaren arloa da, injenieritza, administrazio zientziak, zientzia aplikatua. Ekintzari ekin baino lehen hauek denak – ulermena, azalpena, erabakia, beharrezkoak dira eta diskurtso ireki, taldeko, demokratiko, arrazoizko eta partehartu baten jarduerak izan behar dira. Askotan, maizegi akaso, arazoak konpontzeari ekiten zaio aurreko hiru pauso hauek modu sendo batez eman gabe, ulertu, aztertu, pentsatu, azaldu eta deliberatu gabe, edo agintente hutsez. Filosofia praktikoa beharrezkoa da ordea. Alor ezberdinak ditu filosofia praktikoa, etika, politika, estetika, ekonomia morala, eta zuzenbidea. Zuzena zer den galderari erantzuten zaio – justiziaren teoriak sortzen ditu. Neurri batean zuzenaren adar ezberdin hauek erantzun ezberdinak eskaintzen dituzte, bakoitzak bere diskurtsoa duelako, baina funtsean erantzun guztiak aldarrikatzen dute egoki direla. Zuzenbidearen edo zuzenbideen erantzunak ere egoki beharko luke izan balioz-

ko izateko, baina denok dakigunez, gauza bat da zuzenbidearen erantzuna, baliozkotasun formala edo positiboa, eta beste gauza bat horren egoki edo desiragarritasuna, horren justizia. Zuzenbide positibisten eta naturalisten arteko mendeetako eztabaidak hortik joan dira; positibistek zuzenaren eta baliozkoaren arteko bereizketa egiten, naturalistek bereizketa hura gainditzen. Azken urteotan positibista-ostekoak edo berriak azaldu dira, Dworkin, Alexy, MacCormick, zuzenaren adar ezberdinei heltzen saiatzen direnak, eta neurri batean zuzenbidearen ikuspegi diskurtsiboagoa aldarrikatzen dituzte, Habermasen teoriaren eskutik. Espero dut azken azalpen hauekin hobeto ulertuko dela idazlan honetarako aukeratu dudan izenburua. Ez dagoela zuzenbidearen zuzen izan nahi izatearen aldarri hori ulertzerik filosofia praktikaren beste adarrak ulertu gabe, politika, etika, morala, ekonomia.